

Harem batean bizitzeak dakartzan «debekuak»

→ Fatima Mernissiren 'Terraza debekatua' nobela euskaratu du Edurne Lazkanok.

→ Literatura Unibertsala bildumako 192. liburua da.

Garazi Izagirre Aiestaran

DONOSTIA — Fezko harem batean jaio zen Fatima Mernissi, Marokon, 1940. urtean. «Haren familiako emakumeak ezin dira etxetik irten; muga bat da haientzat. Fatimak beste harem bat topatu du: amona Yasminarena. Inguru hori ezberdina dela ikusi du: han ez dago harresirik. Iruditzen zaio emakumeak libreagoak direla bertan, eta ez dutela mugarik

etxean bertan zerbait egin nahi badute». Edurne Lazkano itzultzailea mintzo da; Mernissiren *Dreams of Trespass* nobela euskaratu du: *Terraza debekatua* (Erein eta Igela). Literatura Unibertsala bilduman eman dute argitara.

2015. urtean zendu zen Mernissi, eta bere ibilbidean saiakera mordoa idatzi zituen. Denetarik gaiak uztartu zituen horietan guztietan; besteak beste, honako hauek zerrendatu ditu Inazio Mujikak, Erein argitaletxeko editoreak: «Emakumeen ahalduntzea, tradizioaren berrirakurketa kritikoa eta Islamaren interpretazio feminista». Hainbat lan argitaratu zituen arren, *Terraza debekatua* idazlearen nobela «bakar» gisa kontsideratzen da.

Fatimaren haurtzaroko «kontakizun fikzionatu» gisa definitu du eleberria editoreak. Hala esanda, pentsa daiteke oroitza pen liburu baten itxura duela. Mujikak azaldu duenez, beti egon izan da eztabaida —eleberria edo oroitza—



Edurne Lazkano, *Terraza debekatua* liburua ondoan duela, atzo, Donostian. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

pen liburu bat ote den—, baina argitu du bien arteko «nahasketa bat» dela. «Liburua ez da harem baten erretratua: identitateari buruzko hausnarketa sakon bat da». Hala azaldu du Mujikak. Emakumeek bizi zituzten «muga fisiko» eta «sinbolikoak» kontatzen ditu. Hauek zerrendatu ditu: «Debekuak, ohiturak, askatasun goseak, eguneroko bizitza, el-

kartasuna eta ahizpatasuna, eta gatazkak».

Ana Lopez Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria Mujikaren zerrendara beste hainbat gako hitz gehitu nahi izan ditu, «kultura sustapenetik lerrokatuta daudenak». Literatura unibertsalaren «balioa» azpimarratu du nagusiki, baina baita itzulpen-gintzaren «boterea» ere: «Beste

herrialdeetako unibertso batzuk ezagutzeko aukera ematen du. Gurera ekartzen dugu, eta gure hizkuntzan egiten dugu. Oso garrantzitsua da hori literatura eta herri bateko kultura sortzeko». Mernissi eta halako erreferenteak bilatzeari garrantzia eman dio, eta talentuari eta sormenari ere leku bat egin nahi izan die: «Bi hitz horiek, batzuetan, idazle edo sortzaile batekin lotzen ditugu, baina itzultzaile baten barnean ere badaude».

«Kartzelaren sinonimo»

Mernissik «ehunka» elkarrizketa egin zituen bere liburuari buruz, eta horietan guztietan bazegoen kazetariak behin eta berriz egiten zioten galdera bat: «Benetan jaio al zara harem batean?». Xehetasun gehiago eman ditu itzultzaileak, eta galdera hori bota ostean, Mernissik kazetariari ezaugarria «irribarre» bat ikusten zuela esan du: «Fatimak hauxe pentsatzen zuen: 'Nola zitekeen irribarre egitea kartzelaren sinonimo zen hura entzun orduko?'». Izan ere, haren amona Yasminarentzat, harema «instituzio krudela» zen, «esku-bide guztiak kentzen zizkiona».

Izenburua nola euskaratu pentsatzen ibili zen Lazkano, eta hainbat modutara itzultzaile zegoela ikusi zuen. Edonola ere, argi zuen kartzelaren ideari egin nahi ziola erreferentzia. «Terrazak ere badu garrantzia eta indarra liburuan: emakumeak ezin ziren harema-ko atetik irten; terrazatik, oster, bai. Debekatutako hartatik alde egiteko bide bat da terraza».

Xilaba
2025eko azararen 9tik
2026ko urtarraren 5ra

BIGARREN FASEA
AIHERRA
Abenduak 6, larunbata
17:00etan, Denen Etxean

Irati Alcantarilla Urdangillita
Karlos Aizpurua Etxarte
Iosu Txoperena Iribarren
Maddalen Arzallus Antia
Maddi Ane Txoperena Iribarren
Patrik Sierd Hildebrand
Gai-entzuleak
Aritz Bidegain

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2025

FINALA!
ABENDUAK 20
zapatua
BILBO
CASILLA 17:00

Aitor Bizkarra Ruiz, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola,
Gorka Pegonaberraga Agorria, Jone Uri Albizuri,
Oihana Bartra Arenas, Onintza Enbeita Maguregi,
Txaber Altube Sarriñandia eta Xabat Galleitebeitia Abaroa.
Gai-jartzaileak: Idola Anzorandia Kareaga eta Igor Menika Bengoetxea.

2026ko EGUTEGI
personalizatuak
egiten ditugu

• Paretekoak, mahai gainekoak...
• Kontsultatu gutxieneko kantitatea
• Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

bidera@bidera.eus
943 30 35 55 / 607 70 73 04
berria liburua
www.bidera.eus

bidera
zerbitzuak